



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko abuztuaren 20a

87. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Ubideko bigarren fasea eraikitzeko proiektua eta alternatiben azterlana idatzi dituen enpresaren kontratazioa eteteko arrazoiei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Galdera, Trafikoko nahiz espetxe-osasuneko transferentziak gauzatu ahal izate aldera Lurralde Politikako ministroarekin lortutako akordioaren edukari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Galdera, mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreari laguntzeko neurriei buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriaren prebentziorako egungo neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Galdera, gazteen enpleguaren arloan Gobernuaren egun egiten ari den neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Galdera, mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearentzako laguntzei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Galdera, Nafarroan airearen kalitatea zaintzeko lanen kontratazioari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztu du (7. or.).
- Galdera, sexu-transmisiozko infekzioen kasuak igotzea ekiditeko hartzen ari diren neurriei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (7. or.).
- Galdera, emakumeek Nafarroako lan-merkatua uzten dutela-eta Nafarroako Berdintasunerako Institutua hartzen ari den kontziliazio-neurriei buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (8. or.).
- Galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egiteko arazorik ez izateko neurriei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Galdera, ratioak murrizteko eta irakasleak kontratatzeko neurriei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (9. or.).
- Galdera, COVID-19aren kutsatzeak miatzeko sistemari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (10. or.).

- Galdera, zahar-etxeetan COVID-19ak izan duen eraginari eta hartutako neurriei buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak aurkeztu du (10. or.).
- Galdera, Euskarabidearen eraikinaren fatxadako errotulazioari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkeztu du (11. or.).
- Galdera, 2020an itunpeko irakaskuntzara bideratutako aurrekontu-igoerari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztu du (12. or.).
- Galdera, liburu-denden sektorea suspertzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (12. or.).
- Galdera, “erkidego-transmisioa” terminoari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (13. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak zuzemenik egin al duen Alemaniako eta Belgikako gobernuen neurriak –beren herritarrei Nafarroara ez etortzeko aholkatzea eta debekatzea– atzera botatzeko. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (14. or.).
- Galdera, itunpeko irakaskuntzarentzako dirulaguntzak igortzeari buruzkoa. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (15. or.).
- Galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egin ahal izateko neurriei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztu du (15. or.).
- Galdera, toki entitateek gerakinak mantentzeagatik finantza entitateei diru-kopururen bat ordaintzeari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztu du (16. or.).
- Galdera, jakiteko ea zer egoeratan dauden inbertsio finantzarioki jasangarriak bukatu ez zituzten udalak. Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztu du (17. or.).
- Galdera, inbertsio finantzarioki jasangarriak betetzeko prozedura luzatzeari dagokionez Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak eta Espainiako Gobernuak lortutako akordioari buruzkoa. Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkeztu du (17. or.).
- Galdera, langile-deialdien segurtasun juridikoa bermatzearren foru dekretu berri bat taxutzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (18. or.).
- Galdera, Eskola Mapa aldatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (19. or.).
- Galdera, 1960tik 1978ra bitarte eta 1978az geroztik tortura dela-eta eginiko txostenei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztu du (20. or.).
- Galdera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean aurreikusitako plan estrategikoari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztu du (20. or.).
- Galdera, Osasunbideko bitarteko langileei gradua ordaintzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan PROA-Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programa izaten ari den emaitzei buruzkoa. Galdera erretiratzea (22. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko urrutiko errehabilitazioko programa berriari buruzkoa. Galdera erretiratzea (22. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Ubideko bigarren fasea eraikitzeko proiektua eta alternatiben azterlana idatzi dituen enpresaren kontratazioa eteteko arrazoiei buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Ubideko bigarren fasea eraikitzeko proiektua eta alternatiben azterlana idatzi dituen enpresaren kontratazioa eteteko arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer dela-eta eten da Nafarroako Ubideko bigarren fasea eraikitzeko proiektua eta alternatiben azterlana idatzi dituen INGIOPSA SL - EPTISA, SERVICIOS DE INGENIERIA SL aldi baterako enpresa-elkartearen kontratazioa?

Iruñean, 2020ko uztailaren 24an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Trafikoko nahiz espetxe-osasuneko transferentziak gauzatu ahal izate aldera Lurralde Politikako ministroarekin lortutako akordioaren edukiari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, trafikoko nahiz espetxe-osasuneko transferentziak gauzatu ahal izate aldera Lurralde Politikako ministroarekin lortutako akordioaren edukiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu

dezan eta Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Aurtengo uztailaren 28an bilera bat egin zuten Nafarroako Gobernuko ordezkariak (Lehendakari-tzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak) eta Espainiako Erresumako Gobernuak (Lurralde Politikako ministroak); bileran, foru gobernuaren beraren arabera, "bi gobernuak adostu dute lanean jarraitzea, transferentzia horiek hurrengo hilabeteotan gauzatu ahal izateko".

Hori dela-eta, ahozko galdera hau aurkezten da:

Zer esan nahi da, zehatz-mehatz, "transferentzia horiek hurrengo hilabeteotan gauzatu ahal izateko" esaten denean? Zer urrats eta kronograma adostu dituzte bi administrazioek, behin betikoz gauzatu daitezkeen (bi transferentzia-dekreturen bidez) bi eskumen horiek?

Iruñean, 2020ko uztailaren 29an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreari laguntzeko neurriei buruzkoa.

PABLO AZKONA MOLINET JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azkona Molinet jaunak aurkeztutako galdera, mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreari laguntzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak neurri-sorta berri bat iragarri du, zeinen artean mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreari laguntzekoak nabarmentzen baitira. Nafarroako eta Errioxako Jatorri Deiturara –baina baita beste AGB eta jatorri deitura batzuetara ere– bideratutako neurriak dira, merkatua arautzeko eta

merkaturatze- nahiz sustatze-zirkuitu laburrei zuzenean laguntzeko.

Zertan dautza neurri horiek eta zer helburu lortu nahi dira horien bidez?

Iruñean, 2020ko uztailaren 30ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

Galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriaren prebentziorako egungo neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriaren prebentziorako egungo neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer neurri hartu du eta zer neurri hartuko du nerabeen eta gazteen arteko genero indarkeriari aurrea hartzeari begira?

Iruñean, 2020ko uztailaren 31n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, gazteen enpleguaren arloan Gobernua egun egiten ari den neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, gazteen enpleguaren arloan Gobernua egun egiten ari den neurriei eta aurreikusitako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusita Nafarroan zer handia den gazteen langabezia-tasa, Gobernuak zer neurri hartu du eta zer neurri hartuko du gazteen enpleguaren arloan?

Iruñean, 2020ko uztailaren 31n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearentzako laguntzei buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztutako galdera, mahastizaintza- eta ardogintza-sektorearentzako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioko foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreari laguntzeko neurri-sorta bat abiarazi du –guztira, 4,3 milioi euro–; neurri-sorta horretako neurri nagusia –2 milioi euro– nekazariarentzako eta enpresa txiki eta ertainentzako laguntza zuzenek osatzen dute, COVID-19ak bereziki kaltetu baititu horiek. Helburua da nekazaritzako enpresen lehiakortasuna eta nekazaritzako ustiatgien bideragarritasuna bermatzea.

Zer irizpide baliatuko da laguntza horiek emateko? laguntza horiek nola bermatuko dute nekazariak merkatuan lehiakorak izatea?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 3an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

Galdera, Nafarroan airearen kalitatea zaintzeko lanen kontratazioari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Nafarroan airearen kalitatea zaintzeko lanen kontratazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin

du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak kontrolleko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi ikasi dugu Nafarroan airearen kalitatea zaintzeko sarearen mantentze-lanak 2020an eta 2021ean kontratatzeko lizitazio-prozedura, zeinak Nafarroan airearen kalitatearen kontrola pribatizatzea baitakar.

Sarearen lizitazioak hilean 16.909,36 € egiten du; GAN enpresa publikoak, aldiz, hilean 14.929,09 euroan egiten zuen lan hori iaz. Mandatu horrekin, jabetzan erosten ziren ordezkoko eki-poak; kontratu berrian, aldiz, ez da halakorik egiten. Hortaz, ez du ematen kudeaketa-aldaketa honek abantailarik dakarrenik.

Nafarroako Gobernuak zer arrazoi darabil Nafarroan airearen kalitatea zaintzeko sarearen mantentze-lanak pribatizatzeke, lan horiek egiteko enpresa publiko bat (Gestión Ambiental de Navarra SA) baldin badago?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, sexu-transmisiozko infekzioen kasuak igotzea ekiditeko hartzen ari diren neurriei buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, sexu-transmisiozko infekzioen kasuak igotzea ekiditeko hartzen ari diren neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken bost urteetan, sexu-transmisiozko infekzioak hiru aldiz ugartu dira Nafarroan: 2014an 247 kasu izan ziren, eta 2019an 750.

2019ko joerak goranzkoa izaten jarraitzen du, 2018ko kasuak baino % 17,74 gehiago izan baitira.

Datu kezkarri hauek direla eta, hona hemen galdera:

Zer neurri hartzen ari da Osasun Departamendua osasun publikoko arazo horri konponbidea emateko?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 10ean

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, emakumeek Nafarroako lan-merkatua uzten dutela-eta Nafarroako Berdintasunerako Institutua hartzen ari den kontziliazio-neurriei buruzkoa.

PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztutako galdera, emakumeek Nafarroako lan-merkatua uzten dutela-eta Nafarroako Berdintasunerako Institutua hartzen ari den kontziliazio-neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Perales Hurtado

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilari Javier Remírez Apesteguía jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pentsan argitaratutako datuei esker jakin ahal izan dugu abuztuan 10.000 emakume baino gehiagok utzi dutela, pandemia hasi zenez geroztik, Nafarroako lan-merkatua. Egoera kezkarri hori ikusirik, hau da galdera:

Nafarroako Berdintasunerako Institutua zer ari da egiten egoera hori arintzeko kontziliazio-neurriei dagokienez?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 10ean

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado.

Galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egiteko arazorik ez izateko neurriei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa EcheGARAY jaunak aurkeztutako galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egiteko arazorik ez izateko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egiteko arazorik ez izateko, Irisgarritasun unibertsalari buruzko 12/2018 Foru Legak eta Ezgaitasunen bat duten pertsonen aukera berdintasunerako, bereizkeriarik ezerako eta nonahi ibiltzeko aukeretarako 51/2003 Legeak jasotzen duten moduan?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 11n

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

Galdera, ratioak murrizteko eta irakasleak kontratatzekeo neurriei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste: Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, ratioak murrizteko eta irakasleak kontratatzekeo neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi ahoz erantzun diezaion Osoko Bilkuran:

COVID-19ak sortutako egoera ikusita, 2020-21 ikasturtean ikasle eta irakasleen segurtasuna eta bestelako beharrak (afektibo, emozionalak eta hezkuntza arretari dagozkionak) bermatzeko taldeak txikitzeak ezinbestekoa dirudi. Hartara, zein neurri hartuko du Hezkuntza Departamentuak ratioak jaisteari eta irakasleen kontratazioari dagokionez?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, COVID-19aren kutsatzeak miatzeko sistemari buruzkoa.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkeztutako galdera, COVID-19aren kutsatzeak miatzeko sistemari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasuneko kontseilari Santos Indurain andreak eta Osasuneko zuzendari nagusi Carlos Artun-

do jaunak hedabideei helarazi diete COVID-19aren kutsatzeak miatzeko sistema bat dagoela, 150 erizain dituena. Baina kazetarien informazioetan emandako datuek zalantza handiak sorrarazten dituzte, nahasita daudelako gaur egun eginkizun horretarako kontratatutako langileak (38) beste baliabide batzuekin, esaterako, Osasun Publikoko eta Oinarrizko Osasun Laguntzako langileak eta arakatazailerak izateko 7 orduko ikastaroaren bidez prestatu bai, baina oraindik kontratatu ez direnak. Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zenbat pertsona daude kontratatuta gaur egun, COVID-19a daukatenen eta ustez daukatenen miaketa eta jarraipena egiteko, Osasun Publikoko eta Oinarrizko Osasun Laguntzako zenbat langile daude COVID-19aren kasuen jarraipena eta miaketa egiten, zenbat pertsona daude COVID-19aren kasuen miaketa eta jarraipena egiteko kontratatua izatearen zain eta uste al duzue aski direla?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Galdera, zahar-etxeetan COVID-19ak izan duen eraginari eta hartutako neurriei buruzkoa.

MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, zahar-etxeetan COVID-19ak izan duen eraginari eta hartutako neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen zenbat pertsona dago 2020ko uztailaren 28an Tuterako La Atalaya zahar-etxean? Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Osasun Departamentuak zer neurri zehatza hartu dituzte 2020ko uztailaren 28an, zahar-etxe horretan gaixotasuna

hedatzea ekiditeko? Hartutako neurriak agiri bidez kreditatzea eskatzen dut.

2. 2020ko uztailaren 28an, zer zahar-etxetan dago pertsona bat edo bat baino gehiago kutsatuta? COVID-19a daukatela baieztatuta dagoen zenbat pertsona dago zahar-etxe horretan? Eskubide Sozialetako Departamentuak eta Osasun Departamentuak zer neurri zehatza hartu dituzte 2020ko uztailaren 28an, zahar-etxe horretan gaixotasuna hedatzea ekiditeko? Hartutako neurriak agiri bidez kreditatzea eskatzen dut.

Iruñean, 2020ko uztailaren 28an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, Euskarabidearen eraikinaren fatxadako errotulazioari buruzkoa.**ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Euskarabidearen eraikinaren fatxadako errotulazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuak noizko aurreikusten du (gutxi gorabehera) gaztelaniazko errotulazioa gehitzea Euskarabidearen eraikinaren fatxadan (Nafarroako Arartekoak hala eskatu baitu) eta zergatik ez da errotulazio elebiduna paratu hasiera batetik?

Iruñean, 2020ko uztailaren 29an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, 2020an itunpeko irakaskuntzara bideratutako aurrekontu-igoerari buruzkoa.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkezturiko galdera, 2020an itunpeko irakaskuntzara bideratutako aurrekontu-igoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andre-

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

– 2020an itunpeko irakaskuntzara bideratutako aurrekontu-igoeraren xehetasuna: zenbat igo da 2019koaren aldean?

– Igoera horren xedearen xehetasuna: zertan inbertitzen ari den, zer parte bideratzen ari den irakasleen soldata igotzera eta zer parte administrazioiko eta zerbitzuetako langileen soldata igotzera.

– Zertara bideratzen ari den igoeraren gainerakoa.

Iruñean, 2020ko uztailaren 29an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

Galdera, liburu-denden sektorea suspertzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, liburu-denden sektorea suspertzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onesten duen abuztuaren 11ko 89/2008 Foru Dekretuaren 9. artikulua jasotzen duenez, ikastetxeek bidezkotzat jotzen duten eskuratze eta antolaketa sistema ezarri ahal izanen dute. Kasu horretan, ikastetxeak testu liburua eskuratzeko gaitasuna izanen du.

COVID-19ak eragindako pandemiatik heldu den krisi ekonomiko honetan, denda txikiak kinka larrian daude, salmentak jaitsi eta diru-sarrerak galdu dituztelako. Liburu-denden sektorea ere egoera horretan dago.

– Gauzak horrela, Nafarroako Gobernuak ba al du sektore hori suspertzera bideratutako neurri zehatzen bat hartzeko asmorik? Hala bada, zein?

– Gogoan hartu al du araudia aldatzeko aukera, halako moduan non ikastetxeek ez baitute testu liburuak erosteko gaitasunik edukiko eta

testu liburuak erosteko prozedura soil-soilik egiten baita testu liburuak liburu-dendetan erosteko txartelen bidez?

– Nafarroako Gobernuak gogoan hartu al du errefortzu positiboko neurriak ezartzeko aukera, testu liburuak liburu-dendetan erostea, ezen ez saltoki handietan, sustatzeko?

Iruñean, 2020ko uztailaren 30ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, “erkidego-transmisioa” terminoari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, “erkidego-transmisioa” terminoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko elehun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Uztailaren 24an, Osasuneko kontseilariak jendaurrean adierazi zuen Nafarroan ez dela COVID-19aren erkidego-transmisioa gertatzen ari. Halere, zenbait datu kezkarri jasotzen dira Osasun Publikoaren Institutuak uztailaren 20ko txostenean, zeina Nafarroako Parlamentura igorri baitzen gaueko aisialdian ordutegiak murrizteari buruzko neurri urgenteak ezartzen dituen lege-dekretuarekin batera.

Horietako bat da jatorri ezezaguneko delatza aurreko bi asteetan baieztatutako kasuen % 22.

Ez daukate Nafarroan atzemandako agerraldieko lotura epidemiologikorik.

Bestalde, uztailaren 28an Osasun Batzordean egindako agerraldian, kontseilariak adierazi zuen departamentua iragarpen-eredu matematikoak baliatzen ari dela, baina ez zuen zehaztu zer kutsatze-gradu esponentzial ematen zuten proiektzio horiek eta zer agertoki iradokitzen zuten proiektzio horiek.

Horiek horrela, hauex jakin nahi dugu:

– Osasun Departamentuak nola definitzen du “erkidego-transmisioa”?

– Osasun Departamentuaren ustez, kasuen % 22 jatorri ezezaguneko izatea bat al dator “erkidego-transmisioa”ren definizio horrekin?

– Ezetz uste badu, zer parametro darabilzue erkidego-transmisioa dagoela edo ez dagoela baieztatzeko?

– Zein da baliatzen ari zareten iragarpen-ereduen proiektzioen emaitza?

– Zer agertoki iradokitzen dute proiektzio horiek?

– Zenbat pertsona ari dira artatzen COVID-19ko balizko kasuetarako jarri den telefona? Zenbat telefono-linea daude erabilgarri? Zer delatza eta ez die inork erantzuten deiei kasu askotan orduetan eta orduetan? Departamentuak ba al du arreta telefonikoa indartzeko asmorik?

Iruñean, 2020ko uztailaren 30ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak zuzemenik egin al duen Alemaniako eta Belgikako gobernuen neurriak –beren herritarrei Nafarroara ez etortzeko aholkatzea eta debekatzea– atzera botatzeko.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak zuzemenik egin al duen Alemaniako eta Belgikako gobernuen neurriak –beren herritarrei Nafarroara ez etortzeko aholkatzea eta debekatzea– atzera botatzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Gobernuak Bruselan duen ordezkariak idatziz erantzun diezaion:

Uztaileko azken egunetan, Alemaniako Gobernuak Nafarroara ez etortzeko aholkatu die bere herritarrei, eta Belgikak etortzea berariaz debekatu die bere herritarrei.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak zuzemenik egin al du bi herrialde horietako agintariei eta iritzi publikoari informatzeko eta neurri horiek atzera bota ditzaten saiatzeko?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Galdera, itunpeko irakaskuntzarentzako dirulaguntzak igortzeari buruzkoa.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko galdera, itunpeko irakaskuntzarentzako dirulaguntzak igortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarri-

takoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuaren 41003 programa –"Irakaskuntza pribatu itundurako eta hari parekaturako dirulaguntzak"– % 4,5 inguru igo da 2019ko aurrekontutik 2020rako aurrekontura. Navarra Sumak honako galdera hauek egin nahi dizkio departamentuari:

– Aurrekontuko igoera horren zer parte bideratzen da –hezkuntza-mailen arabera xehakaturik– sare itunduko irakasleen soldatak igotzera?

– Aurrekontuko igoera horren zer parte bideratzen da –hezkuntza-mailen arabera xehakaturik– sare itunduko administrazioko eta zerbitzuetako langileen soldatak igotzera?

– Programa horretako zer beste lerro igo da 2019tik hona? Zein izan da igoeraren zenbatekoa eta zeri zor zaio?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 4an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

Galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egin ahal izateko neurriei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkezturiko galdera, desgaitasuna duten pertsonen Foru Administrazioan edozein lan egin ahal izateko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Atzo, desgaitasuna duen pertsona batek (erabateko itsutasuna du) "zeharkako diskriminazioa" eta Nafarroako Gobernuan lan egiteko ezintasuna salatu zituen idatzizko komunikabide baten bidez, Foru Administrazioak erabiltzen duen programa ez delako bateragarria itsuentzako hedapenekin.

Informazio berean, Eraldaketa Digitaleko zuzendari nagusiak egoera hori baloratu zuen eta

"erronka onartu zuen, ahalik eta lasterren tratatze aldera".

1. Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak kasu jakin hori konpontzearen?

2. Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak aipatutakoa bezalako kasuak berriro gerta ez daitezen eta desgaitasuna duten pertsonen Administrazioan edozein lan egiteko arazorik izan ez dezaten?

3. Nafarroako Gobernuak ba al du antzeko kasuren baten berri?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 10ean.

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, toki entitateek gerakinak mantentzeagatik finantza entitateei diru-kopururen bat ordaintzeari buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturiko galdera, toki entitateek gerakinak mantentzeagatik finantza entitateei diru-kopururen bat ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Lurralde Kohesioko Departamentuak ba al daki toki-entitateek dirurik ordaintzen dietela finantza-erakundeei gerakinak mantentzeagatik?

Jakinez gero, zer entitateri eragiten die horrek eta zein da zenbatekoa?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, jakiteko ea zer egoeratan dauden inbertsio finantzarioki jasangarriak bukatu ez zituzten udalak.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturiko galdera, jakiteko ea zer egoeratan dauden inbertsio finantzarioki jasangarriak bukatu ez zituzten udalak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Zer egoeratan geratu diren 2019ko abenduaren 31n inbertsio finantzarioki jasangarriak bukatuak ez zituzten udalak (esaterako, Martzilla, Alesbes eta Cabanillas)

Iruñean, 2020ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, inbertsio finantzarioki jasangarriak betetzeko prozedura luzatzeari dagokionez Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak eta Espainiako Gobernuak lortutako akordioari buruzkoa.

YOLANDA IBÁÑEZ PÉREZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturiko galdera, inbertsio finantzarioki jasangarriak betetzeko prozedura luzatzeari dagokionez Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioak eta Espainiako Gobernuak lortutako akordioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Yolanda Ibáñez Pérez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion.

Espainiako Udalen eta Probintzien Federazioaren eta Espainiako Gobernuaren arteko akordioan honako hau aipatzen da: "Hamargarrena.-Salbuespen kasuetan, baimena emanen da 2019an abiarazi eta 2018ko superabitarekin finantzatzen ari diren Inbertsio finantzarioki jasangarriak betetzeko prozedura luzatzeko, baldin eta gastua betetzeko prozeduraren baitan xedapen edo konpromiso fasea 2020an egiten bada", Zer jarrera du Nafarroako Gobernuak horren aurrean?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 12an

Foru parlamentaria: Yolanda Ibáñez Pérez

Galdera, langile-deialdien segurtasun juridikoa bermatzearen foru dekretu berri bat taxutzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, langile-deialdien segurtasun juridikoa bermatzearen foru dekretu berri bat taxutzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion:

Behin 103/2017 Foru Dekretuaren artikulua batzuk indargabetuta geratu dira Nafarroako auzitegiak emandako epaiaren ondorioz, Nafar Gober-

nuak uko egin baitzion helegitea jartzeari. Kolokan egon zitezkeen, beraz, dekretuan oinarritutako deialdiak, zonalde "misto", "ez euskaldun"ean eta zerbitzu zentraletan euskara meritu gisa baloratu izateagatik.

Gobernuak hasiera batean adierazi zuen urtarrierako izanen zuela prest bestelako araudiren bat segurtasun juridikoa bermatzeko. Ondoren, adierazi zuen Dekretua egiten hasia zela, baina oraindik ez dugu horren berririk.

Hartara, galdetu nahi dugu:

– Zein fasetan dago dekretua egiteko prozesua? Noizko onartuko du gobernuak? Zein izango dira bere ezaugarri nagusiak?

– Zenbat eta zein plaza atera da epaiaz gerotik, departamentuka eta zonaldeka (euskalduna, mistoa eta ez-euskalduna?

– Zeinetan izan da euskara prezeptiboa?

– Zeinetan baloratu da meritu gisa eta zenbateko balorazioz, eta zeinetan ez da baloratu ere egin?

– Zeinetan baloratu da atzerriko beste hizkuntzaren bat meritu gisa eta zenbateko balorazioz, eta zeinetan ez da baloratu?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Eskola Mapa aldatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Eskola Mapa aldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion:

Mendigorrian D ereduak lerroa irekitzeko aukeraren inguruan egindako galderari erantzunez, Hezkuntza Kontseilariak honakoa adierazi digu:

“Cualquier modificación o variación que se estime conveniente realizar en el mapa escolar aprobado mediante Decreto Foral 80/2019, de 3 de julio, debe en todo caso llevarse a cabo

mediante el correspondiente expediente administrativo para la elaboración de disposiciones reglamentarias (consulta pública previa, audiencia y participación, memorias justificativas...), finalizando el mismo con la aprobación de la oportuna Orden Foral del Consejero de Educación.

(...)

Es voluntad del Departamento de Educación, y así se ha trasladado a las familias y en otros foros, analizar, tras este primer año de vigencia, el Mapa Escolar actual con el fin de considerar posibles cambios que resuelvan situaciones susceptibles de mejora. La valoración que se va a realizar sobre la oferta de modelo D en el curso 2021-2022 tendrá en cuenta, entre otros, los criterios de demanda y de planificación eficiente y adaptada al contexto del centro educativo”.

Erantzun honek 2021-22 ikasturteko aurrematrikulazio garairako Eskola Mapa aldatzeko aukera iradokitzen du.

– Zein da Departamentuak azaldutako prozesuak hartuko lukeen denbora-tartea?

– Noiz dauka asmoa Departamentuak dekretua aldatzeko prozesuari ekitea?

– Berma lezake Departamentuak aipatu aldaketa indarrean egonen litzatekeela aurrematrikulazio aldia iristerako?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, 1960tik 1978ra bitarte eta 1978az geroztik tortura dela-eta egini-ko txostenei buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, 1960tik 1978ra bitarte eta 1978az geroztik tortura dela-eta egini-ko txostenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean,

honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuak urratsik egin al du Kriminologiaren Euskal Institutuak "1960tik 1978ra bitarte Nafarroan izandako torturak eta tratatu txarrak" txostena 1978tik aurrerako aldiari buruzko bigarren txosten batekin osatzeko?

– Hala ez bada, ba al du hori egiteko asmorik? Noiz?

– ¿Departamentuak edo Nafarroako Memoria-ren Institutuak berak ekimenen bat aurreikusi al dute 1960tik 1978ra bitarte eta 1978az geroztik tortura izandako errealitatearen gainean?

– Departamentuak aurreikusi al du etorkizune-ko Bizikidetzaren Planak jorratzea torturaren gaia eta garai ezberdinetan hura pairatu dutenen egiarako, errekonozimendurako eta memoriarako eskubi-dea?

Iruñean, 2020ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean aurreikusitako plan estrategikoari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legean aurreikusitako plan estrategikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Biztanleria Aktiboaren azkeneko Inkestak, 2020ko bigarren seihilekoari dagokionak, zifra kezkagarriak ematen ditu Nafarroako emakumeen lan egoeraren aldetik, hala soldata arrakalari, lanpostua galtzeari nola lan-merkatua uzteari begira.

“Emakumeen kalitatezko enplegua bultzatzera eta laneko desberdintasunak eragindako arraila murriztera bideratutako proposamenak egiten dituen txosten bat jorrazteko ponentziak” (2019ko martxoaren 22an) egindako txostenean, ondorioen ataleko 6. puntuan, Nafarroako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Foru Legearen esparruan aurreikusitako Plan Estrategikoa tresna giltzarritzat jotzen da Nafarroako emakumeen enplegua garatu eta hobetzeko.

Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko apirilaren 4ko 17/2019 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian ezartzen denez, Nafarroako Gobernuak, foru legeak indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, foru lege horren 14. artikuluan aurreikusitako plan estrategikoa onetsi beharko du. Beraz, oraingoz bost hilabeteko ez-betetzea izan da.

Hori dela-eta, talde parlamentario honek idatziz erantzuteko ondoko galdera aurkeztu du:

Zein izan dira Plan Estrategikoa garatzeko jarduketak zehatzak, zein da haren idazketa maila eta Departamentuaren ustez noiz arte luzatuko da haren onespeneraren ez-betetzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 13an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Osasunbideko bitarteko langileei gradua ordaintzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanaz. Galdera Osasunbideko bitarteko langileei gradua ordaintzeari buruzkoa zen, eta 2019ko azaroaren 19ko 37. Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/POR-00286).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan PROA-Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programa izaten ari den emaitzei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanaz. Galdera Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan PROA-Antibiotikoen Erabilera Optimizatzeko Programa izaten ari den

emaitzei buruzkoa zen, eta 2019ko abenduaren 10eko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/POR-00308).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko urrutiko errehabilitazioko programa berriari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko abuztuaren 17an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren ganean dagoela Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko ahozko galdera erretiratu izanaz. Galdera Nafarroako Ospitaleguneko urrutiko errehabilitazioko programa

berriari buruzkoa zen, eta 2019ko abenduren 20eko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-19/POR-00233).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

